



Euskaraz bai dinamika herrietan

EUSKAL HERRI MAILAKO ERAGITE-EKINTZAK - 2010

'Euskaraz bai dinamika herrietan' egitasmoaren orain arteko lan ildo soziala izan da, nagusiki. Gizarte eragile eta entitateek beren erakundeetan euskararen garapen osoa erdiesteko eragiten jarraituko dugu, eta hizkuntza-politikaren lanketa ere egingo dugu.

Urteotan egitasmoaren egitekoa izan da Bai Euskarari Ziurtagiria ezagutarazi eta hedatzen laguntzea. Orain, Ziurtagiriaren Elkarte sortuta, ziurtagiriaren kudeaketa osoa Elkartearen gain geratuko da. 2010etik aurrera, EBDHK ez du jada Ziurtagiriari dagokion eragite-lana bultzatuko.

1. Udalerrien hizkuntza-politikaren bigarren neurketa (otsailean).

2006ean egindako neurketaren alderaketa egingo da 2010ean. Bigarren neurketa eginez, urteotan udalek egindako ibilbideak euskararen garapenean ondorio positiborik izan duen aztertu nahi da. Era berean, duela lau urte neurtu ez ziren herrietan neurketa egiteko asmoa badago. Herrietako euskalgintzako eragileen laguntzaz egin nahi da ebaluazioa. Zeregina hau da:

- Landa-lana egin eta galdetegiak osatzea. Neurtu beharrekoak galdetegian daude zerrendatuta, eta landa-lanaren bidez aztertuko dira. Horretarako:
 - Neurketa egingo duen lantaldea osatu eta galdetegiak ezagutu eta zalantzak argitu.
 - Landa-lana egin. Erne! Galdera gehienetan agiriak, argazkiak edo bestelako dokumentazioa aurkeztea eskatzen da, erantzunak objektibatzeko.
 - Markatutako epean galdetegiak bete eta Kontseiluari helarazi. Emaitzak matematizatuko dituen aplikazio informatiko batean sartu beharko dira datuak.
- Galdetegiaren lau ataletako batek udalaren hainbat informazio ofizial aztertzen ditu. Aurreko urratsarekin batera, udalaren arauekin loturiko galdetegia erantzuteko informazioa eskatu udalari (euskara teknikariak dira informazio horiek eskaintzen ahal dutenak). Erne! informazioa lortzea luza daiteke. Urratsak:
 - Aurkezpen-gutuna bidali udalei.
 - Harremanetan jarri euskara teknikariarekin.
- Bildutako datuen inguruko kontrasteak egitea, galdetegiak behar bezala osatzeko, eta udalari erantzuteko eskubidea emateko.

2. Gizarte-eragileek eta norbanakoek konpromisoak hartu eta betetzea.

Herriz herri adosten diren ekintzez gain, Kontseiluak urtero proposatuko ditu konpromisoen ezarpena bultzatzeko Euskal Herri mailako bizpahiru lanketa, herri guztiekin une berean eta erabakigarriak diren zenbait alorrekin garatzeko. Ekintzak garatzeko oinarrizko informazioa eta



aldekotasunak herrietan bilduko dira, eta eragin beharreko entitateak herrikoak, Euskal Herrikoak edota Euskal Herritik kanpokoak izango dira, kasuaren arabera. Gizarte-eragileez gain, norbanakoei ere parte hartzeko deia egingo zaie, horien eraginez ere bizkortzeko entitateek euskararekiko jokabide aktiboak izatea (dagozkien konpromisoak hartu eta betetzea). Horretarako, herriz herriko ikastoletako guraso eta irakasleei, euskaltegi-tako ikasleei, eta euskara talde eta kultur taldeetako kideei egingo zaie parte hartzeko deia. Ekintzak tokian tokiko ezaugarrietara moldagarriak izango dira. 2010erako proposatzen diren ekintzak:

- ***Establezimenduetako langileen euskalduntzea eragitea*** (apirilean).

Ekintzaren helburua da jendaurreko zerbitzua eskaintzen duten herrietako enpresa, saltegi eta era guztietako entitateetan zerbitzua euskaraz (ere) eskainiko dela ziurtatzea. Ekintza modu ezberdinean gara daiteke herri euskaldunetan (ezagutza ziurtatuta egon daiteke, ordea, ez erabilera) eta gainerakoetan (ezagutzan eragin behar).

- Herri euskaldunetan: dendariak (zerbitzu-emaileak) eta bezeroek euskara erabiltzen ote duten neurtzea proposatzen da. Segidan, azterketaren emaitza gizarteratuko da. Egoera txarra den tokietan, 'lehen hitza euskaraz' moduko kanpaina gara daiteke.
- Gainerakoetan: galdeketa egingo da, jakiteko zenbat langilek egiten duten lan jendaurrean, eta horietatik zenbatek eskaini dezaketen zerbitzua euskaraz (ezagutu eta erabiltzeko gaitasuna). Segidan, behaketaren emaitza gizarteratuko da. Ondoren, egoera txarra den tokietan, langile erdaldunei euskaltegiaren izena ematera bultzatzeko kanpaina gara daiteke.

- ***Merkatalgune handien hizkuntza-paisaiaren euskalduntzea eragitea*** (urrian)

Helburu nagusia da euskaldunon informazio-eskubidea bermatzea, baina badu baita ere helburu sinbolikoa, euskara eta euskaldunok bagarela, ez garela klandestinoak erakutsi nahi izatea. Euskara ikusgarri eginez, herritarrek euskarari buruz dugun pertzepzioa hobetu daiteke, eta baita euskararen aldeko jarrera hartzera eragin ere. Izan ere, hizkuntza-paisaia hizkuntzen bizitasunaren isla da.

Horretarako, herrietako merkatalgune handiak aztertuko dira, gidoi baten arabera, argazkiak eginez. Komeniko da merkatalgunearen arduradunak jakinaren gainean egotea. Azterketaren ondoren, egoera txarra den tokietan, beren hizkuntza-paisaia erdarekiko modu orekatuan euskaratzera gonbidatuko ditugu. Egoera ona den tokietan, zoriondu egingo dira Behatokian.

EGUTEGIA

2010

Urt	Ots	Mar	Api	Mai	Eka	Uzt
-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

Plangintza

Udalen Hizkuntza-
Politikaren
NEURKETA

oporrak

Establezimenduetako
langileen euskalduntzea
eragitea

Udalen Hizkuntza-politikaren NEURKETA Udalen datuak



Mintegia herrien beharrak ezagutzeko (horrekin Kontseiluak bere eskaintza prestatu)

Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe
-----	-----	-----	-----	-----	-----

Oporrak

*Merkatalgune handien
hizkuntza-paisaiaren
euskalduntzea eragitea*

Oporrak



Mintegia Kontseiluak bere eskaintza aurkezteko herriei



www.euskalgintza.org